

LANGILEEN KUDEAKETAREN ARLOKO ISILTASUN ADMINISTRATIBOAK, IRAKASLE FUNTZIONARIOEI¹, HEZKUNTZAKO LAN-KONTRATUKO LANGILEEI²ETA IKASTETXEEI ATXIKITAKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO LANGILEEI³ APLIKATU BEHARREKO LANGILEAK KUDEATZEARI BURUZKOAK

A. Adierazitako langileek egindako eskabideak, adierazitako epean berariazko ebazpenik eman eta jakinarazten ez bada, **EZETSITZAT jo izango dira**:

PROZEDURA		GEHIENEZKO EPEA
Bateragarritasun-eskaerak	jarduera pribatuan aritzeko	2 hilabete
	sektore publikoan bigarren lanpostu edo jarduera bat betetzeko	3 hilabete
Norberaren gauzetarako baimenak, ordaindu gabeak edo partzialki ordainduak (segidako 15 egunetik gorako iraupena)		3 hilabete
Gora jotzeko helegitea		3 hilabete

¹Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa.

²Lan-kategoriaren arabera aplikatzekoak diren hitzarmen kolektiboak:

- Hezkuntza Sailaren mendeko lan-kontratuko irakasle eta hezitzaileen hitzarmen kolektiboa
- Hezkuntza Saileko lan-kontratuko langileen hitzarmen kolektiboa (garbiketa, sukaldea, autobuseko langileak...)
- Hezkuntza Sailaren mendeko Erlijioa lan-kontratuko langileen hitzarmen kolektiboa

³Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzura diharduten funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa.



- B. Adierazitako langileek egindako eskabideak, **BAIETSITZAT jo ahal izango dira, baldin eta baldintzak betetzen badira**, adierazitako epean berariazko ebazpenik eman eta jakinarazten ez bada:

PROZEDURA	GEHIENEZKO EPEA
Bikotekidearen, lehen mailako ahaideen eta bizikideen gaixotasun edo istripu larriagatiko, ospitaleratzeagatiko edo etxean atsedean hartzea eskatzen duen ebakuntza kirurgikoagatiko lizentzia	Egun 1
Ezkontidearen, izatezko bikotekidearen edo lehen mailako senidearen heriotza	Egun 1
Lehen mailako ahaideen gaixotasun oso larriagatik lanaldia murrizteko lizentzia	3 hilabete
Nahitaezko betebeharrak publiko edo pertsonalak betetzeko lizentzia	3 egun
Jaiotzagatiko lizentzia amentzat eta/edo gurasoentzat. Beharrezko asteak	3 egun
Jaiotzagatiko lizentzia amentzat eta/edo gurasoentzat. Borondatezko asteak. <u>Nahitaezkoa da gutxienez 15 egun lehenago jakinaraztea</u>	3 egun
Adopzio, zaintza edo harreragatiko lizentzia	3 egun
Hamabi hilabete baino gutxiagoko seme-alabaren edoskitzeagatiko lizentzia. Orduka.	Egun 1
Hamabi hilabete baino gutxiagoko seme-alabaren edoskitzeagatiko lizentzia. Metatua.	3 hilabete
Zortzi asteko guraso-baimena	3 hilabete
Norberaren edo senideen ezkontzagatiko edo izatezko bikotea eratzeagatiko lizentzia	10 egun
Ohiko etxebizitzaz aldatzeko lizentzia	10 egun
Sindikatuaren edo langileen ordezkaritza-lanak egiteko lizentzia	3 hilabete



Emakumeen aurkako indarkeria matxistagatiko lizentzia	3 hilabete
Azterketetara joateko lizentzia	3 egun
EAEko Administrazio Orokorrean sartzeko probetara eta Hezkuntza Sailak deitutako hautaprobetara joateko ordaindutako lizentzia	3 hilabete
Adingabeak edo egiaztatutako aniztasun funtzional fisiko, psikiko edo sentSORIALA duten pertsonak zaintzeko lanaldi-murrizketarako baimena	3 hilabete
Minbizia edo bestelako gaixotasun larriren bat duen adingabeko semea edo alaba zaintzeko baimena	3 hilabete
Gaixotasun kronikoa edo mugitzeko arazoak dituzten senitartekoak zaintzeko 50 orduko baimena	3 hilabete
Lanpostuaren eginkizunarekin zerikusia duten lanbide-hobekuntzako ikasketak egiteko baimena	3 hilabete
Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoetara joateko baimena	3 hilabete
Zientzia-, teknika-, lanbide-, elkargo-, elkarte- edo sindikatu-arloko ekitaldi kolektiboetara joateko baimena	3 hilabete
Karguaren ondoriozko eginkizunak betetzeko baimena instituzioetako hautetsia	3 hilabete
Norberaren edo ordaindu gabeko gauzetarako baimenak (segidako 15 egunetik beherako iraupena)	3 hilabete
Egonaldiak gaua igarotzearekin konpentsatzeko baimena, eskatutako baimena segidako 15 egun baino gutxiagokoa denean	3 hilabete
Odola edo odol-osagaiak emateagatik ordaindutako baimena	3 hilabete
Eliteko kirolarientzako baimena	3 hilabete